

65

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

EAE TXOSTENA **2020**

FINANTZAKETA ETA
GASTU PUBLIKOA
kulturan



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA **kulturan**



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa
aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 2022ko azaroan

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastian 1, Vitoria-Gasteiz 01010

Koordinazio teknikoa: ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana: SIADECO, S.COOP.

Itzultzailea: LETE Itzulpenak-traduccionen, SL

Diseinua eta maketazioa: EPS Comunicación

ISBN: 978-84-457-3679-1

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Edukien aurkibidea

Aurkezpena	10
A. METODOLOGIA.....	11
A.1 Fitxa teknikoa.....	12
A.2 Azterlanaren behaketa-eremua.....	13
B. KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA	14
B.1 Kulturari likidatutako gastuaren bilakaera.....	15
B.2 Kulturari gastuaren pisu erlatiboa.....	17
B.3 Kulturari-gastuaren sailkapen ekonomikoa	20
B.4 Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntaren tipologia.....	22
B.4 Kulturari-gastuaren sailkapena kulturari-eremuen arabera	25
C. GASTUA KULTURARI ADMINISTRAZIO-MAILEN ARABERA	28
C.1 Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen arabera	29
C.2 Gastua kulturari kulturari-sektoreen eta administrazio-mailen arabera	31
D. GASTUA KULTURARI ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MULTZOAN.....	40
D.1 Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen artean.....	42
D.2 Jatorrian kontsolidatutako kulturari-gastua	43
D.3 Jatorrian kontsolidatutako kulturari-gastua	48
D.4 Emaizak nagusiak kulturari-sektorearen arabera	52
Musika.....	52
Kulturari-ekintza.....	53
Museoak.....	54
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	55
Liburutegiak.....	56
Antzerkia eta dantza.....	57
Zinema eta ikus-entzunezkoak	58

Ondarea eta arkeologia.....	59
Jaiak eta herri-kultura	60
Artxiboak.....	61
Ikusizko-arteak	62
Literatura eta edizioa	63
Bertsolaritza.....	64
E. KULTURA-ENPLEGUA.....	65
E1. Kultura-enplegua.....	66
F. ERANSKINA.....	72
F.1 Datuen estrapolazioa.....	75
F.2 Aztertutako kontzeptuak	76
F.2.1. Kultura-gastuaren izaera ekonomikoa	76
F.2.2. Kultura-gastuaren norakoa: eremuen deskribapena.....	77
F.2.3. Kultura-izaerako diru-sarrerak	78
F.2.4. Kultura-enplegua	78
F.3 Gastuaren kontsolidazioa.....	78

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Kulturari likidatutako gastua administrazio-mailen arabera (€) 2008-2020.	15
2. grafikoa.	Gastu likidatua kulturari aurrekontu osoen aldean, administrazio-mailen arabera (%) 2008-2020.	17
3. grafikoa.	Gastu likidatua kulturari udalen aurrekontu osoen aldean, udal-dimentsioaren arabera (%) 2008-2020.	19
4. grafikoa.	Kulturari likidatutako gastua gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%).....	21
5. grafikoa.	Gastu arrunta ondasun eta zerbitzuetan, administrazio motaren eta administrazio-mailen arabera (%).	24
6. grafikoa.	Kulturari likidatutako gastua gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%).....	26
7. grafikoa.	Gastua kulturari, administrazio-mailen arabera (€).	30
8. grafikoa.	Gastua kulturari kultura-eremuen eta administrazio-mailen arabera (%).	32
9. grafikoa.	Gastua kulturari kultura-eremuen eta udal-dimentsioaren arabera (%). ..	39
10. grafikoa.	Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, administrazio-mailaren arabera (€) 2010-2020.	44
11. grafikoa.	Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%).	45
12. grafikoa.	Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, kultura-sektorearen arabera (€). 2010-2020.	49
13. grafikoa.	Gastua kulturari EAEko administrazio publikoetan, kultura-eremuaren arabera (%). 2018-2020.	50
14. grafikoa.	EAEko kultura-gastu kontsolidatua Musikarako (%) 2010-2020.	52
15. grafikoa.	Biztanleko gastu kontsolidatua Musikarako (€) 2010-2020.	52
16. grafikoa.	EAEko kultura-gastu kontsolidatua Kultura-ekintzarako (%) 2010-2020.	53
17. grafikoa.	Biztanleko gastu kontsolidatua Kultura-ekintzarako (€) 2010-2020.	53
18. grafikoa.	EAEko kultura-gastu kontsolidatua Museotarako (%) 2010-2020.	54

19. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Museoetarako (€) 2010-2020.....	54
20. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Zuzendaritzarako eta zerbitzu orokorretarako (%) 2010-2020.	55
21. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Zuzendaritzarako eta zerbitzu orokorretarako (€) 2010-2020.	55
22. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Liburutegietarako (%) 2010-2020.	56
23. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Liburutegietarako (€) 2010-2020.	56
24. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Antzerkirako eta dantzarako (%) 2010-2020.	57
25. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Antzerkirako eta dantzarako (€) 2010-2020.	57
26. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Zinemarako eta ikus-entzunezkoetarako (%) 2010-2020.....	58
27. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Zinemarako eta ikus-entzunezkoetarako (€) 2010-2020.....	58
28. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Ondarerako eta arkeologiarako (%) 2010-2020.	59
29. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Ondarerako eta arkeologiarako (€) 2010-2020.....	59
30. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Jaietarako eta herri-kulturarako (%) 2010-2020.....	60
31. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Jaietarako eta herri-kulturarako (€) 2010-2020.....	60
32. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Artxiboetarako (%) 2010-2020.	61
33. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Artxiboetarako (€) 2010-2020.	61
34. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Ikusizko-arteetarako (%) 2010-2020.	62
35. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Ikusizko-arteetarako (€) 2010-2020.	62
36. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Literaturarako eta ediziorako (%) 2010-2020.	63
37. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Literaturarako eta ediziorako (€) 2010-2020.	63
38. grafikoa. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Bertsolaritzarako (%) 2010-2020.	64
39. grafikoa. Biztanleko gastu kontsolidatua Bertsolaritzarako (€) 2010-2020.	64
40. grafikoa. Kultura-enplegu publikoa (lanpostu urtekotuak) 2010-2020.	67
41. grafikoa. Kultura-enplegu publiko propioa (I. kapituluari lotutakoa) erakunde motaren arabera (lanpostu urtekotuak) 2008-2020.	67
42. grafikoa. Kultura-enplegu publiko propioa (I. kapituluari lotutakoa) sexuaren arabera.....	67

Taulen zerrenda

1. taula.	Ondasun eta Zerbitzuetan gastu arrunteko kapituluaren bitartez finantzaturako kultura-zerbitzu eta kultura-jarduera motak (II. kapitulua), erakunde motaren eta Urtearen arabera.....	24
2. taula.	Kulturari likidatutako gastua kultura-eremuen, erakunde motaren (eurotan eta %tan) eta Urtearen arabera.....	27
3. taula.	Gastua kulturari kultura-sektorearen, administrazio-mailen (euroak eta %) eta Urtearen (1/2) arabera.....	34
4. taula.	Udalen gastua kulturari kultura-sektorearen, lurralde historikoaren (eurotan eta %tan) eta Urtearen arabera.	37
5. taula.	Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen artean eta transferentzien bilakaera 2018-2020 aldian.	42
6. taula.	Administrazio-maila bakoitzaren pisu erlatiboa EAEren kulturari gastuan (eurotan eta %tan).	44
7. taula.	EAEko administrazio publikoaren kulturari-gastuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (eurotan eta % bertikala).	47
8. taula.	Kulturari-gastuaren eta gastu kontsolidatuaren banaketa biztanleko EAEko administrazio publikoetan, kultura-sektorearen eta Urtearen arabera (1/2).....	51
9. taula.	EAEko kulturari-gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera: Musika (€tan eta %tan) 2010-2020.....	52
10. taula.	EAEko kulturari-gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera: Kulturari-ekintza (€tan eta %tan) 2010-2020.....	53
11. taula.	EAEko kulturari-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Museoak (€tan eta %tan) 2010-2020.	54
12. taula.	EAEko kulturari-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (€tan eta %tan) 2010-2020.....	55
13. taula.	EAEko kulturari-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Liburutegiak (€tan eta %tan) 2010-2020.	56

14. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Antzerkia eta dantza (€tan eta %tan) 2010-2020.	57
15. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Zinema eta ikus-entzunezkoak (€tan eta %tan) 2010-2020.	58
16. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Ondarea eta arkeologia (€tan eta %tan) 2010-2020.	59
17. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Jaiak eta herri-kultura (€tan eta %tan) 2010-2020.	60
18. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Artxiboak (€tan eta %tan) 2010-2020.	61
19. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Ikusizko-arteak (€tan eta %tan) 2010-2020.	62
20. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Literatura eta edizioa (€tan eta %tan) 2010-2020.	63
21. taula.	EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Bertsolaritza (€tan eta %tan) 2010-2020.	64
22. taula.	Kultura-enplegu publikoa erakunde motaren, funtzio profesionalaren, kontratu-loturaren eta Urtearen arabera.	69

Aurkezpena

Euskal Autonomia Erkidegoko kulturako Finantzaketa eta Gastu Publikoari buruzko azterlanaren zazpigarren edizioaren emaitzak eskaintzen ditu txosten honek, 2020 urteko datuei dagokienez.

Azterlan honen helburua da EAEko Administrazio Publikoaren kulturako finantzaketa eta gastu publikoaren izaeraren berri izatea, eta horretarako Administrazioaren kultura-aurrekontuak zehatz-mehatz aztertzen dira, baita haren mendeko erakunde autonomo, sozietate publiko eta elkarten kultura-aurrekontuak ere, eta horrek aukera ematen du kultura-baliabideen izaera ekonomikoa eta kultura-jomuga zein diren jakiteko.

Azterlan hau bi Urtean behin egin da 2008. Urteaz geroztik, eta beraz, azken 12 urteetan EAEn kulturara bideratutako baliabide-publikoen bilakaera jakiteko bide ematen digu, 2020ko datuen berri emateaz gainera.

Azterlan hau irakurtzean kontuan hartu beharra dago, une oro, 2020an Covid-19ak eragindako krisia. Horren eraginez, Urtea oso desberdin joan zen aurreikusita zegoenaren aldean, eta krisiaren inpaktua hainbat jarduera ekonomikotan nabarmendu zen, besteak beste, kulturaren. Urruntze sozialeko neurriek eta zenbait motatako debekuek 2020. Urtearen zati handi batean kultura-jarduera bertan behera uztea ekarri zuten, ia sektore guztietan eraginez. Estatistika honen helburua Covid-19aren krisiak gastu publikoan eta kulturaren finantzaketan izan duen inpaktua neurtzea izan ez bada ere, 2020ko datuetan nabarmena da krisi horrek sektorean izan duen inpaktua, batez ere gastu mota batzuetan eta azpisektore jakin batzuetan. Krisi berri horrek zuzenean eragin du kultura-gastuak aurreko krisi ekonomiaren ondorioz jasan zuen efektu negatibotik suspertzeko prozesuan. Estatistikaren hurrengo edizioetara begira oso garrantzitsua izango da datuen bilakaera aztertzea, eta kultura-sektorea nola suspertzen den eta kultura-politikek suspertze horretan nola eragiten duten ikustea.

The image features a complex abstract background. The top half is a light purple gradient with faint, overlapping geometric shapes. The middle section is a dark blue gradient with a large, semi-transparent white letter 'A' on the right side. The bottom half is a light blue gradient with similar faint geometric shapes. The word 'METODOLOGIA' is written in white, bold, uppercase letters across the dark blue section.

METODOLOGIA

A.1 Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena

Euskal Autonomia Erkidegoko finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika.

Aztertutako gaia

EAEko Administrazio Publikoaren eta haren mendeko erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kultura-aurrekontuak.

Eragiketaren estatusa

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak garatua. EUSTATEk ofizializatua

Aldizkakotasuna

Bi Urtean behin

Informazio-erreferenziaren Urtea

2020

Informazioa noiz bildu den

Uztaila – otsaila 2022

Informazio-bilketa

Informazioa zuzenean jaso da fitxa egituratuaren bidez (euskarri informatikoan eta paperean) hainbat erakundetan: Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioak. Aholkularitza eta laguntza espezifikoak ere eskaini dira, erakunde bakoitzeko informatzaileen ezaugarrietara eta beharretara egokitua, teknika sorta baten bidez.

A.2 Azterlanaren behaketa-eremua

Honako hauek dira estatistika honen zundaketa-oinarriaren osagaiak:

- ◆ **Zentsu** bidezko landa-lan bat, **Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udal** guztiak (72 udal) barne hartzen dituena. Azterketaren xedeetarako, estratifikazio bat egin da, 5.000-20.000 biztanleko udalak, 20.000 biztanletik gorako udalak eta hiru hiriburuak bereiziz.
- ◆ **5.000 biztanletik beherako udalerrietako** toki-administrazioen **lagin** esanguratsu bat hartu da landa-lana egiteko (98 udal), hau da, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udalen % 54,7 aintzat hartuz, non estratu horretako udalerrietako biztanleen % 55,9 bizi diren.
- ◆ **Zentsu** bidezko landa-lan hori egin da administrazio baten edo batzuen mendeko edo horiek % 100ean partaidetutako **erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen** artean. Partaidetza publikoa izaki, 2020an administrazioaren eskutik 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso dituzten erakundeak ere barne hartu dira (46 erakunde guztira).

**KULTURAN
LIKIDATUTAKO GASTUA**


IB

B.1 Kultura likidatutako gastuaren bilakaera

Kultura likidatutako gastua esaten dugunean, EAEko administrazio publikoetan kultura betearazitako aurrekontuez ari gara, haien arteko kontsolidazio-jardunik gabe. 2020an, EAEko administrazio publiko guztiek likidatutako kultura-gastua 518.452.898 euro izan zen guztira; 2018. Urtean, 558.581.959 euro izan zen, hau da, 2020an % 7ko beherakada nabari da.

2008-2020 aldian, Eusko Jaurlaritzak kultura egindako gastuak gora egin du (% 18ko igoera), eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioek egindako gastuak ere bai (% 11). Foru-aldundiak zein udalak kultura egindako gastuak, ordea, behera egin du nabarmen (% 29 eta % 30, hurrenez hurren).

1. GRAFIKOA. Kultura likidatutako gastua administrazio-mailen arabera (€) 2008-2020.



Aldakuntza	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak
2008-2020	▲ % 17,7	▼ % 29,4	▼ % 29,9	▲ % 10,5
2018-2020	▲ % 12,7	▼ % 5,9	▼ % 12,3	▼ % 8,7

2018-2020 bilakaeran, kulturari likidatutako gastuak Eusko Jaurlaritzan bakarrik egin du gora (% 13), eta gainerako administrazio publikoetan, aldiz, behera. Erakunde horretan likidatutako kulturari-gastua 2018an 69,1 milioi euro izatetik 2020an 77,9 milioi euro izatera igaro da. Eusko Jaurlaritzak estatistikaren edizio guztietan lortutako bigarren kopuru handiena da (2014an soilik gainditu zen, 79,2 milioi euroko gastu batekin). Gastuak gora egin du erakundeak kulturari-azpisektore jakin batzuei egindako transferentzietan gorakada izan delako: Musika eta Museoak, eta, neurri txikiagoan, Antzerkia eta Dantza eta Artxiboak.

Beherakadarik esanguratsuena udaletan nabari da, likidatutako kulturari-gastuak % 12 egin duelako behera, aurreko edizioan baino 30 milioi euro gutxiagorekin; horrenbestez, kulturari-gastua 211,4 milioi euro izan da guztira. Udalek jarraitzen dute estatistikaren hasieratik nabari den beheranzko joeraren ildotik (2016an izan ezik, urte horretan gastua igo baitzen), eta EAEko udaletan izan da kulturari-gastuaren kopuru txikiena, 2008-2014 krisi ekonomikoaren ondoko aroaren balioen azpitik.

Foru-aldundien kasuan, beherakada % 6 da, aurreko urteetako baino handiagoa baina ez udaletan bezain handia.

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kasuan, beherakada zertxobait nabariagoa da (% 9)¹.

2008-2012 urteetako krisi ekonomikoan agerian geratu zenez, udalak dira (2020ko edizio honetan Covid-19aren pandemiak sortutako) krisiaren eraginez kulturari-gastuaren beherakada handiena izan duten erakunde publikoak. Estatistikaren edizio bakoitzean errekonferentzia-zantzuak agertzen ziren, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioak gainditzeko ari zirela aditzera ematen zutenak, baina kulturari-gastuak guztiz errekonferentziatu gabe jarraitzen zuten. Krisi berri horrek udaletako kulturari-aurrekontuen beste atzerakada bat ekarri du berekin.

1 Eranskinean azaltzen den moduan, edizio honetan kulturari-eremuko lau erakunde autonomo desagertu dira beren udaletako egiturari integratu direlako, horren eraginez, horrelako erakundeetan gastuak behera egin duelarik.


B.2 Kulturako gastuaren pisu erlatiboa

Udalak dira kulturako gastu-ahaleginik handiena egiten duten administrazio-erakundeak: 2020an, kultura-gastua aurrekontu osoaren guztizkoaren % 7,1 izan zen, estatistikaren edizio guztietako baliorik txikiena.

Udalen ostean, foru-aldundiek egiten dute gastu-ahaleginik handiena kulturakoan, eta 2020an aurrekontu osoaren % 2,6 gastatu zuten. Aurreko edizioetan kopurua nahiko egonkor mantendu bada ere, azken edizioan datuak behera egin du.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren kultura-gastua % 0,7 izan da, haren aurrekontu osoaren aldean.

2. GRAFIKOA. Gastu likidatua kulturako aurrekontu osoen aldean, administrazio-mailen arabera (%) 2008-2020.



2008-2020 aldian aurrekontu osoen aldakuntza kulturako aurrekontuen aldakuntzaren aldean jartzen badugu, zera egiaztatzen dugu, gastu-igoerak izaten direnean, kultura-igoera txikiagoa dela gastu osoaren igoera baino, eta gastu-beherakadak erregistratzen direnean, berriz, kultura-jaitziera handiagoa dela gastu osoaren jaitziera baino.

2008-2020 aldian, Eusko Jaurlaritzaren kasuan soilik izan da aurrekontuen gorakada, nahiz eta, ehunekotan, kultura-gastuaren igoera (% 18) txikiagoa izan den aurrekontu osoaren igoera (% 26) baino. Foru-aldundietan eta udaletan, aurrekontu osoak eta kultura-aurrekontuak behera egin dute 2008-2020 aldian, baina ehunekotan, kultura-gastuaren beherakada nabarmen handiagoa izan da aurrekontu osoen beherakada baino. Hala, foru-aldundietan, aurrekontu osoaren beherakada % 1 izan da, eta kultura-

gastuaren beherakada, berriz, % 29. Udalen kasuan, beherakadak % 9 eta % 30 izan dira, hurrenez hurren.

2018-2020 aldian, joera aldatu egiten da erakundearen arabera: Eusko Jaurlaritzan, aurrekontu osoak eta kultura-aurrekontuak egin dute gora. 2018-2020 aldirako zein 2008-2020 aldirako, kultura-aurrekontuak talde horretan bakarrik egin du gora.

Foru-aldundietan, aurrekontu osoak gora egin du, baina kulturalak % 6 egin du behera duela bi urtekoaren aldean.

Udaletan, bi kasu motetan nabari da beherakada, baina kultura-aurrekontuaren beherakada nabarmen handiagoa da aurrekontu osoarena baino (% 12 eta % 0,1, hurrenez hurren).


Aldakuntza	Aurrekontua	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak
2008-2020	Aurrekontu osoa	▲ % 26,4	▼ % 1,4	▼ % 8,7
	Kultura-aurrekontua	▲ % 17,7	▼ % 29,4	▼ % 29,9
2018-2020	Aurrekontu osoa	▲ % 4,1	▲ % 5,6	▼ % 0,1
	Kultura-aurrekontua	▲ % 12,7	▼ % 5,9	▼ % 12,3

2020an, EAEko udalen batez besteko kultura-ahalegina % 7,1 izan da. Habitat-tamainari dagokionez, hiru hiriburuek egindako ahalegina (% 6,7) eta 5.000 biztanletik beherako udalek egindakoa (% 6,6) batezbesteko horren azpitik daude. Gainerako udal-habitatetan, kulturalan egindako gastu-ahalegina batezbestekoa baino handixeagoa da: 20.000 biztanletik gorako udaletan % 7,9, eta 5.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitarteko udaletan % 7,2.

2008-2020 aldian, aurrekontu osoetan beherakada orokorra izan da, eta beherakada hori nabarmen handiagoa izan da kultura-aurrekontuetan, 20.000 biztanletik gorako udalerrien salbuespenarekin (% 2ko gorakada). Nabarmentzekoa da, batik bat, 5.000 biztanletik beherako udaletan kultura-gastuak % 55,8ko beherakada izan duela (44 milioi euro izatetik 20 milioi euro izatera).

2018-2020 aldian, aurrekontu osoak hiriburuetan bakarrik egin du gora, % 1,1eko igoerarekin. Kultura-aurrekontuaren beherakada nabarmen handiagoa da estratu guztietan: % 5,7tik % 24,5era bitarte, eta orduan eta handiagoa da udalerrien tamaina zenbat eta handiagoa izan.

3. GRAFIKOA. Gastu likidatua kulturalen udalen aurrekontu osoen aldean, udal-dimentsioaren arabera (%) 2008-2020.



Aldakuntza	Aurrekontua	< 5.000 biztanle	5.000 - 20.000 biztanle	> 20.000 biztanle	Hiriburuak
2008-2020	Aurrekontu osoa	▼ % 31,2	▼ % 9,6	▼ % 0,5	▼ % 5,6
	Kultura-aurrekontua	▼ % 55,8	▼ % 32,8	▲ % 2,0	▼ % 34,7
2018-2020	Aurrekontu osoa	▼ % 4,5	▼ % 0,1	▼ % 0,0	▲ % 1,1
	Kultura-aurrekontua	▼ % 24,5	▼ % 15,8	▼ % 12,6	▼ % 5,7

B.3 Kultura-gastuaren sailkapen ekonomikoa

Kulturari egindako gastua bere sailkapen ekonomikoaren arabera aztertzen bada, gastu arrunta kapital-gastuari nabarmen nagusitzen zaiola ohartzen gara: aztertutako administrazio-erakunde guztietan, 10 eurotik 8 baino gehiago gastu arruntekoak dira. Udalak dira gastu arruntaren pisu handiena erregistratzen duten erakundeak (% 96). Eusko Jaurlaritza da kapital-gasturik handiena duen erakundea (% 16).

Bilakaerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzan gastu-arruntaren garrantziak gora egin duela ikusten da: % 16 igo da aurreko edizioaren aldean, 56,1 milioi euro izatetik 65,0 milioi euro izatera igaroz, estatistikaren edizio guztietako bigarren kopuru absolutua izateraino (2014ko kopuruak gainditzen du soilik). Igoera hori nabari da, batez ere, 2020an Eusko Jaurlaritzak egindako transferentzia arruntek gora egin zutelako (aurreko ediziotik transferentzia horiek % 21 igo dira: zehazkiago Eusko Jaurlaritzak aurreko edizioan baino ia 10 milioi gehiago transferitu ditu). Aurreko ediziotik, honako sektore hauetako transferentziak igo dira gehien: Musika (% 23ko igoera eta 4,4 milioi gehiago: musika-irakaskuntzako zentroei eta Euskadiko Orkestrari egindako transferentziak igo dira), Museoak (% 33ko igoera), eta, neurri txikiagoan, Antzerkia eta dantza (% 31ko igoera eta 828 mila euro gehiago) eta Artxiboak (% 75eko igoera eta 682 mila euro gehiago). Igoera horrek lotura zuzena dauka Covid-19aren pandemiaren ondoriozko efektu ekonomikoari aurre egiteko kultura-sektoreari eman zitzaizkion ohiz kanpoko laguntzekin.


Kapital-gastuak ere handiagoak dira erakunde horretan (% 3), eta 11,9 milioi izatetik 12,4 milioi euro izatera igaro dira, kapital-transferentzien igoeraren ondorioz, neurri handi batean. Bi gastu motek erakunde horretan bakarrik egin dute gora aldi berean.

Ehunekotan gora egin badu ere, foru-aldundietan gastu arruntari eusteko joera nagusitu da: 2018-2020 bilakaeraren beherakada % 0,7 izan da bakarrik. Kapital-gastuak % 25 egin du behera, ordea, 13,0 milioi euro izatetik 9,7 milioi euro izatera, inbertsioen beherakadaren ondorioz bereziki (kultura-inbertsioak 6,6 milioi izatetik 3,6 milioi izatera igaro dira, % 46ko beherakadarekin).


Azken edizio honetan, gastu arrunta udal-erakundeetan jaitsi da batik bat: % 10'eko beherakada nabari da, eta gastu arrunta, berriz, 201,9 milioi euro izan da guztira. Udalen gastu arrunta 2018ko krisi ekonomikoaren ondoko garaiko kopuruetera itzuli da: 2012an gastu arrunta 202,6 milioi euro izan zen, eta 2014an, berriz, 197,0 milioi euro. Gastu arrunta kapituluz kapitulu aztertzean ohartzen gara beherakada handiena ondasun eta zerbitzuen gastu arruntetan nabari dela: gastu hori 20 milioi euroan jaitsi da, kopuru absolutua 53,5 milioi euro izanik, kopuru txikiena horrelako gastuetan estatistikaren edizio guztietan. Kapital-gastuari dagokionez, udaletan ere gastu mota horrek behera egin du nabarmen: inbertsioak % 4 baino ez dira izan, estatistikaren hasierako % 22ko kopurutik oso urrun. Termino absolututan, aurreko edizioan kapital-gastua ia 8 milioi euro jaitsi zen EAEko udaletan, eta beherakada horren ondorioz lortu dira baliorik txikiak estatistikaren hasieraz geroztik: 2020an, EAEko udalek % 89 gutxiago inbertitu dute kulturari 2008an baino.

Erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan, gastu arruntak 2020ko aurrekontu osoaren aldean duen pisua ia % 90 da (139,5 milioi euro). 2020an, kapital-gastua % 10 da ehunekotan (15,8 milioi euro), eta ehuneko hori handixeagoa da 2018ko % 9a baino, kopuru absolututan zertxobait txikiagoa bada ere (2018an 16,0 milioi euro izan zen).

4. GRAFIKOA. Kulturalen likidatutako gastua gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%).



B.4 Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntaren tipologia



2020an, EAEko Administrazio Publikoek 129,8 milioi euro jarri dute guztira kultura-zerbitzu eta kultura-jarduerarako, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntaren II. kapituluaren bitartez (kulturen likidatutako gastuaren % 23,8), ia 37 milioi gutxiago 2018an baino (% 22ko jaitsiera). Gastu horren zati handiena egiturazkoak ez diren zerbitzuak kontratatuzko da (49,2 milioi euro, % 38); jarraian, hornigaien eta mantentze-lanen gastuak datoz (28,1 milioi euro, % 22), kulturako egiturazko zerbitzuak (22,5 milioi euro, % 17), langile laguntzaileen gastuak (18,1 milioi euro, % 14), eta, azkenik, bestelako gastuak (12,0 milioi euro, % 9).

Ondasun eta zerbitzuen gastu arrunt osoaren % 48 erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioei dagokie (62,1 milioi euro), eta % 41 udalei (53,5 milioi). Aldundiek egindako gastu arrunta % 7 da (9,6 milioi euro), eta Eusko Jaurlaritzarena % 3,6 (4,6 milioi euro).

Bilakaerari erreparatzen badiogu, 2018-2020 aldian, erakunde mota guztietako ondasun eta zerbitzuen gastuak behera egin du: jaitsiera handiena udaletan izan da (% 27ko beherakada), eta, jarraian, Eusko Jaurlaritzan (% 21eko beherakada), erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan (% 19ko beherakada), eta, azkenik, foru-aldundietan (% 7ko beherakada).

Eusko Jaurlaritzaren ondasun eta zerbitzuen gastuak, gainerako erakundeek ez bezala, Bestelako gastuen pisu handiena dauka. Kontzeptu horren barnean hartutako gastua 2,2 milioi euro da, erakundearen bigarren kapituluko gastu osoaren % 47. Eusko Jaurlaritzaren hornigai eta mantentze-lanen gastua, berriz, ondasun eta zerbitzuen gastu osoaren % 44 da: 2,0 milioi euro. Bi gastu mota

horiek behera egin dute estatistikaren aurreko edizioaz geroztik. Eusko Jaurlaritzan, egiturazkoak ez diren zerbitzuak dira sailkapen ekonomikoaren bigarren kapituluaren barruan gora egin ez duen gastu mota bakarra (0,3 milioi euroekin).

Foru-aldundietan, udaletan eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan, sailkapen ekonomikoaren bigarren kapituluaren barruan egiturazkoak ez diren zerbitzuak nagusitzen dira, gastuaren % 45arekin, % 44arekin eta % 34arekin, hurrenez hurren.


Foru-aldundietan, egiturazkoak ez diren zerbitzuetan gastua 4,3 milioi euro da, eta zenbateko horrek gora egin du aurreko edizioaren aldean (% 9ko igoera). Kulturako egiturazko zerbitzuetan gastuak behera egin du nabarmen: aurreko edizioan 3 milioi euro izan zen, eta aurtengoan 1,5 milioi euro (% 49ko beherakada).

EAEko udaletan, egiturazkoak ez diren zerbitzuen gastuak kapitulu ekonomiko horren barnean nagusi izaten jarraitzen badu ere, gastu mota horrek oso beherakada handia izan du: 2018an kopurua 42,3 milioi euro izan zen, eta 2020an 23,5 milioi euro izan da (% 44ko beherakada nabari da beraz). Covid-19aren krisiaren efektuarekin zerikusi zuzena dauka beherakada horrek. Kultura-jarduera mugatzearen eta urruntze sozialeko neurriak hartzearen eraginez, horrelako gastuak izugarri jaitsi dira, udalek kultura-zerbitzuak kontratatzeari utzi diotelako, edo pandemiaren ondoriozko oztupoek kontratazio hori galarazi dutelako.

Udaletan ere, laguntzaileen gastuek behera egin dute nabarmen: 2020an kopurua 6,7 milioi euro izan zen, % 23 txikiagoa aurreko edizioan baino.

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kasuan adierazi dugunez, egiturazkoak ez diren zerbitzuetako gastuak ere dira nagusi: guztira 21,1 milioi euro dira, eta horien pisu erlatiboak egonkor eutsi dio (% 34) aurreko ediziotik, nahiz eta gastuan % 19ko beherakada izan den. Ondasun eta zerbitzuen gainerako gastu arrunt mota guztiek ere behera egin dute erakunde horietan, eta beherakada bereziki nabarmendu da kulturako egiturazkoak ez diren zerbitzuetan (13 milioi euroekin, % 25eko beherakada) eta bestelako gastuetan (6,3 milioi euro, % 26ko beherakada).

5. GRAFIKOA. Gastu arrunta ondasun eta zerbitzuetan, administrazio motaren eta administrazio-mailen arabera (%).



1. TAULA. Ondasun eta Zerbitzuetan gastu arrunteko kapituluaren bitartez finantzatutako kultura-zerbitzu eta kultura-jarduera motak (II. kapitulua), erakunde motaren eta Urtearen arabera.

Kulturako zerbitzu eta jardueraren mota	Urtea	Eusko Jaurlaritzza		Foru-aldundiak		Udalak		Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak		Guztira €
		€	%	€	%	€	%	€	%	
Kulturako egiturazko zerbitzuak	2018	-	-	3.044.177	28,1	8.190.970	11,2	17.350.184	22,7	28.585.331
	2020	-	-	1.548.617	16,2	7.973.359	14,9	12.952.307	20,8	22.474.282
Laguntzaileak	2018	187.969	3,2	942.304	8,7	8.677.028	11,8	10.670.988	13,9	20.478.289
	2020	126.174	2,7	663.422	6,9	6.718.851	12,6	10.602.859	17,1	18.111.305
Egiturazkoak ez diren zerbitzuak	2018	-	-	3.906.771	36,1	42.250.922	57,5	26.172.751	34,2	72.330.445
	2020	293.948	6,3	4.252.242	44,5	23.512.319	44,0	21.126.641	34,0	49.185.150
Hornidura eta mantentze-lanak	2018	2.273.131	38,6	2.506.175	23,2	11.950.256	16,3	13.916.965	18,2	30.646.527
	2020	2.035.956	43,8	2.116.038	22,1	12.800.001	23,9	11.147.484	17,9	28.099.479
Beste gastu batzuk	2018	3.428.280	58,2	426.380	3,9	2.370.497	3,2	8.475.723	11,1	14.700.880
	2020	2.188.270	47,1	985.752	10,3	2.486.029	4,6	6.300.739	10,1	11.960.790
Ondasun eta zerbitzuen gastu osoa	2018	5.889.380	100,0	10.825.808	100,0	73.439.673	100,0	76.586.610	100,0	166.741.472
	2020	4.644.349	100,0	9.566.070	100,0	53.490.559	100,0	62.130.029	100	129.831.006

B.4 Kultura-gastuaren sailkapena kultura-eremuen arabera

Arteen eta Kultura-industrien eremurako gastua nagusi da Eusko Jaurlaritzan (% 65), udaletan (% 70) eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan (% 59). Foru-aldundietan, berriz, Ondare-eremurako kultura-gastuaren ehunekoak jarraitzen du nagusi izaten (% 58).


Erakunde motaren arabera, Eusko Jaurlaritzan gora egin du kultura-eremuetarako gastuak: Arteetan eta Kultura-industrietan gastua % 11 igo da (45,5 milioi euro izatetik 50,5 milioi euro izatera), Ondarean % 15 igo da (22,4 milioi eurotik 25,7 milioira), Zuzendaritzan eta zerbitzu orokorretan % 24 (1,2 milioi eurotik 1,5 milioi eurora) eta Jaietan eta herri-kulturari gastuak nabarmen egin du gora: 6 mila euro izatetik 207 mila euro izatera.

Foru-aldundietan gora egin du Arteen eta kultura-industrien gastuak, eta pisu erlatiboa irabazi du (gastua % 6 igo da, 24,9 milioitik 26,3 milioi eurora). Gainerako kultura-eremuetan gastua murriztu egin da, eta, balio absolutuetan, Ondarean nabari da jaitsierarik handiena, 48,4 milioi izatetik 42,6 milioi izatera igaro baita (% 12ko beherakada).

Udaletan, Jaien eta herri-kulturaren gastuan izandako beherakada nabarmentzen da: EAEko udalek iaz baino 18,7 milioi gutxiago jarri dituzte Jaietarako eta herri-kulturarako. Horrelako erakundeetan, lehen aldia da hain estatistika-balio txikiak ikusten direla eremu horretarako. % 67ko beherakada izan da, eta horrek lotura zuzena dauka Covid-19aren pandemiak eragindako murrizketekin. Arteen eta kultura-industrien eremuan ere jaitsiera bat nabari da udalek horretan egindako gastuari dagokionez: aurreko edizioaren aldean, beherakada % 10 izan da, 165 milioi euro izatetik 148,7 milioi euro izatera igarota.

Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen eremuan ere beherakada handia nabari da Jaien eta herri-kulturaren gastuan: gastuak % 43 egin du behera, 4,7 milioi euro izatetik 2,7 milioi euro izatera. Arteetarako eta kultura-industrietarako gastuan ere beherakada nabari da: 103,3 milioi euro izatetik 90,9 milioi euro izatera (% 12ko beherakada).

6. GRAFIKOA. Kulturalan likidatutako gastua gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%).



2. TAULA. Kulturari likidatutako gastua kulturari-eremuen, erakunde motaren (eurotan eta %tan) eta Urtearen arabera.

Kultura- eremua	Urtea	Eusko Jaurlaritzaren			Foru-aldundiak			Udalak			Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak		
		€	%	Bilakaera%	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Ondarea	2018	22.413.845	32,4	22,1	48.367.395	61,6	16,0	35.177.430	14,6	-10,4	44.432.691	26,1	29,3
	2020	25.701.717	33,0	14,7	42.647.602	57,7	-11,8	33.278.329	15,7	-5,4	44.497.175	28,6	0,1
Arteak eta industriak	2018	45.489.002	65,8	0,5	24.914.552	31,7	-12,9	165.019.468	68,5	2,8	103.261.097	60,7	-21,4
	2020	50.474.908	64,8	11,0	26.294.041	35,6	5,5	148.735.570	70,4	-9,9	90.878.225	58,5	-12,0
Jaiak eta herri-kultura	2018	6.021	0,0	-	79.716	0,1	-33,8	27.879.811	11,6	-0,3	4.672.723	2,7	-3,9
	2020	207.165	0,3	3340,7	42.273	0,1	-47,0	9.177.357	4,3	-67,1	2.653.451	1,7	-43,2
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2018	1.230.160	1,8	-69,6	5.122.909	6,5	-39,5	12.850.295	5,3	-13,9	17.664.843	10,4	3,2
	2020	1.521.273	2,0	23,7	4.874.991	6,6	-4,8	20.178.356	9,5	57,0	17.290.466	11,1	-2,1
Guztira	2018	69.139.028	100,0	2,2	78.484.572	100,0	-0,5	240.927.004	100,0	-0,7	170.031.355	100,0	-9,4
	2020	77.905.063	100,0	12,7	73.858.906	100,0	-5,9	211.369.612	100,0	-12,3	155.319.316	100,0	-8,7




**GASTUA KULTURAN
ADMINISTRAZIO-MAILEN
ARABERA**

Kultura-gastua administrazio-mailen arabera aztertzean, Administrazioaren zuzeneko gastuak hartu dira aintzat (kasu honetan, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta Udalak), baita haien erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen gastuak ere, azken horien diru-sarrerera publikoak haien diru-sarrerera guztien % 50 direlarik.

Partiden kontabilizazio bikoitza saihesteko helburuarekin, administrazio-maila bakoitzean gastua kontsolidatzeko prozesu bat eraman da aurrera, eta horrek bide ematen du administrazio-maila bakoitzaren kultura-gastua zein den argi eta garbi erakusteko, bakoitzaren deszentralizazio-maila edozein izanik ere.

C.1 Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen arabera

2020an, euskal administrazioek beren mendeko erakundeei egindako transferentziak 117,6 milioi euro izan ziren, eta 2018. Urtean, berriz, 119,8 milioi euro (% 2ko murrizketa izan da beraz).



2018arekin alderatuta, 2020an gora egin dute Eusko Jaurlaritzak zein foru-aldundiek egindako transferentziak; udalek, ordea, diru gutxiago transferitu diete beren mendeko edo beraiek partaidetutako sozietate publiko eta fundazioei. Hortaz, 2020. Urtean:


- ◆ Eusko Jaurlaritzak 24,3 milioi euro transferitu zuen, eta 2018an, berriz, 22,3 (% 9ko igoera).
- ◆ Foru-aldundiek 22,0 milioi euro transferitu zuten, eta 2018. Urtean, berriz, 20,8 milioi euro (% 6ko igoera).
- ◆ Udalek 71,3 milioi euro transferitu zuten, eta 2018an, berriz, 76,8 milioi (% 7ko beherakada).

2020an, Eusko Jaurlaritzak 82,7 milioi euro jarri zuen kulturean, 2018an baino % 7 gehiago (administrazioaren gastuak eta haren mendeko edo hark partaidetutako sozietate publiko eta fundazioen gastuak barne).

2020an, foru-aldundien eta haien mendeko sozietate publiko eta fundazioen gastu kontsolidatua 82,3 milioi euro izan da, 2018an baino % 3 gutxiago.

Administrazio-mailen arabera gastu kontsolidatuaren beherakada handiena udaletan eta haien mendeko edo haiek partaidetutako sozietate publiko eta fundazioetan nabari da: % 15 behera egin du 2018tik 2020ra bitarte, 276,1 milioi euro izatetik 235,8 milioi euro izatera.

7. GRAFIKOA. Gastua kulturean, administrazio-mailen arabera (€).




Aldakuntza	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak
2008-2020	▲ % 3,5	▼ % 14,7	▼ % 27,0
2018-2020	▲ % 6,7	▼ % 3,3	▼ % 14,6

C.2 Gastua kulturalan kultura-sektoreen eta administrazio-mailen arabera

Administrazio-mailen arabera kontsolidatutako kultura-gastua aztertuko dugu jarraian, kultura-eremuaren arabera. Beheko irudikapen geografikoari begiratuta, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- ◆ Eusko Jaurlaritzan zein EAEko udaletan, **Arteen eta Kultura-industrien** eremuari zuzendutako gastu-ehunekoa nabarmendu da serie estatistiko osoan. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2020an ehunekoak gora egin du aurreko edizioaren aldean, % 62 izateraino (51,0 milioi euro). Udalen kasuan, berriz, eremu horretan 2018tik 2020ra bitarteko bilakaera egonkorragoa izan da: % 60, gutxi gorabehera (140,9 milioi euro). Foru-aldundietan, kultura-eremu horren garrantzia, ehunekotan, txikiagoa da gainerako erakunde motetan baino; zehazki, kulturalen kontsolidatutako gastuaren % 37 zuzentzen zaie Arteei eta kultura-industriei.
- ◆ **Ondarearen** eremua nagusi da foru-aldundietan: kulturalen egindako gastu guztiaren % 57 da, 46,7 milioi euro, zehazki. Bilakaerari erreparatzen badiogu, aurreko edizioaren aldean kultura-eremu honek pisua galdu du ehunekotan. Eusko Jaurlaritzak bere kultura-gastu guztiaren % 34 zuzentzen dio eremu horri (28,3 milioi euro), eta udalek, berriz, % 20 (48,0 milioi euro).
- ◆ **Zuzendaritzaren eta Zerbitzu Orokorren** gastuak udaletan nabarmentzen dira batik bat, haien gastu osoaren % 15 izanik (35,1 milioi euro). Eusko Jaurlaritzan eta foru-aldundietan, kultura-eremu horren pisu erlatiboa txikiagoa da, % 4 eta % 7 ehunekotan, hurrenez hurren (3,2 milioi euro eta 5,5 milioi euro).
- ◆ **Jaiek eta herri-kulturak** udaletan dute garrantzi handiena (gastuaren % 5); Eusko Jaurlaritzan eta foru-aldundietan, aldiz, % 0,3 eta % 0,1 baino ez dira. Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da udaletan eremu horretan izan den beherakada handia, Covid-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondorioz.

8. GRAFIKOA. Gastua kulturalan kultura-eremuen eta administrazio-mailen arabera (%).



Erakunde mota bakoitzaren kultura-eremu eta kultura-sektoreen araberako gastuari dagokionez, lehenago esan dugunez, Eusko Jaurlaritzan Arteei eta kultura-industriei zuzendutako gastua da nagusi. Eremu horren barruan, gastuaren zati handiena Musikaren sektoreari dagokio, erakundearen gastu osoaren % 30 eta guztira 24,4 milioi euro izanik. Sektore horri zuzendutako gastua handiagoa da aurreko edizioan baino (% 14ko gorakada). Kultura-eremu horren barnean nabarmentzekoa da Antzerkiaren eta dantzaren sektoreak (% 18ko igoera, sektoreari 3,8 milioi euro ere zuzenduz) eta Bertsolaritzak (% 21 gehiago, 226 mila euroko kopuru batekin, estatistikaren edizio guztietako kopururik handiena) izan duten bilakaera positiboa. Ondarearen eremuaren barruan, 2018az geroztik eremua bere osotasunean askorik aldatu ez bada ere, Artxiboen sektorean beherakada handi bat izan da (% 30eko beherakada, 2,9 milioi euro izatetik 2,1 milioi euro izatera). Aurreko edizioetan bezala, kultura-eremu horren barruan

Eusko Jaurlaritzak Museoei zuzendutako gastua da nagusi, gastu osoaren % 20 izanik eta sektoreari 16,2 milioi euro zuzenduta.

Foru-aldundien kasuan, berriz, Ondarearen eremua da garrantzitsuena ehunekotan, kultura-gastu osoaren gainean. Eremu horren barnean, gastuaren zati handiena Museoetarako da (25,3 milioi euro, kopuru hori aurreko edizioaren kopuruaren oso antzekoa izanik). Aurreko edizioaz geroztik sektoreak egonkor eutsi badio ere, Ondarearen eremua osatzen duten gainerako kultura-sektoreetarako gastua jaitsi egin ikusten da: Ondarearen eta arkeologiaren sektoreak % 25 egin du behera, 10,1 milioi eurotik 7,6 milioi eurora pasatuz; Artxiboen sektoreak % 18, 7,8 milioi eurotik 6,4 milioi eurora; eta, azkenik, Liburutegien sektoreak % 17, 9,0 milioi euro izatetik 7,5 milioi izatera. Arteetan eta industrietan egindako gastua bi sektoretan zentratzen da batik bat: Kultura-ekintza (gastu osoaren % 12: 9,8 milioi euro) eta Musika (gastu osoaren ia % 12: 9,6 milioi euro). Bilakaerari begiratzen badiogu, nabarmentzekoa da Ikusizko-artearen sektorean (sektore horretan gastua % 102 igo da: 1,2 milioi eurotik 2,4 milioi eurora) eta Literaturan eta edizioan (% 102ko gorakada: 419 mila eurotik 846 mila eurora) izandako gorakada.

Azkenik, udalen 2018-2020 bilakaeran bereziki nabarmendu behar da Jaiei eta herri-kulturaren eremuan izan den beherakada: % 64 izan da, eta udalek aurreko edizioan baino 20,7 milioi euro gutxiago jarri dituzte eremu horretarako (hortik ondoriozta dezakegu Covid-19aren pandemiak eragindako krisiak gehien kolpatu duen kultura-eremua izan dela). Arteen eta kultura-industrien eremua da EAEko udalen baliabide gehien jaso dituen eremu horretarako 140,9 milioietatik 60,5 milioi Musikaren sektoreari dagozkio (udalen gastu kontsolidatu osoaren % 26), eta 50,9 milioi euro Kultura-ekintzako sektoreari (gastu osoaren % 22). Eremu hori osatzen duten sektore guztietan gastuaren beherakada bat izan da, Literaturaren eta edizioaren sektorean izan ezik (% 61ko igoera, sektore horretan serie estatistiko osoaren bigarren kopurua izan delarik: 765 mila euro). Ondarearen eremuan beherakada izan da (% 5eko beherakada), eta hori hala izan da Artxiboen (% 25eko beherakada, kopuru osoa 2,4 milioi euro izanik), Museoen (% 6ko beherakada, kopuru osoa 12,8 milioi euro izanik) eta Liburutegien (% 4ko beherakada, 30,7 milioi euroko kopuru osoarekin) sektoreetan izandako beherakadaren eraginez. Udalek Ondarearen eta arkeologiaren sektoreari zuzendutako gastuak gora egin du nabarmen (% 41), sektoreari 2 milioi euro zuzenduta.

3. TAULA. Gastua kulturaren kultura-sektorearen, administrazio-mailen (euroak eta %) eta Urtearen (1/2) arabera.

Kultura-sektorea	Urtea	Eusko Jaurlaritza			Foru-aldundiak			Udalak		
		€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Ondarea	2018	27.973.081	36,1	46,4	52.024.321	61,1	14,5	50.379.717	18	-2,2
	2020	28.269.529	34,2	1,1	46.706.233	56,7	-10,2	47.993.287	20,4	-4,7
Ondarea eta arkeologia	2018	4.944.639	6,4	15,6	10.100.618	11,9	-9,7	1.450.350	0,5	-80,2
	2020	5.381.120	6,5	8,8	7.578.494	9,2	-25,0	2.046.946	0,9	41,1
Liburutegiak	2018	4.458.622	5,8	74,6	8.986.929	10,6	42,4	32.081.406	11,6	13,2
	2020	4.586.024	5,5	2,9	7.468.198	9,1	-16,9	30.710.885	13,0	-4,3
Artxiboak	2018	2.944.217	3,8	-6,4	7.772.287	9,1	158,5	3.208.262	1,2	5,0
	2020	2.055.896	2,5	-30,2	6.400.142	7,8	-17,7	2.394.923	1,0	-25,4
Museoak	2018	15.625.603	20,2	71,2	25.164.486	29,6	1,0	13.639.699	4,9	6,6
	2020	16.246.490	19,6	4,0	25.259.398	30,7	0,4	12.840.533	5,4	-5,9
Arteak eta industriak	2018	47.033.273	60,7	-3,3	27.458.456	32,3	-15,2	164.365.553	59,5	-8,3
	2020	51.020.181	61,7	8,5	30.010.405	36,5	9,3	140.885.110	59,7	-14,3
Antzerkia eta dantza	2018	3.188.143	4,1	9,9	2.001.201	2,4	-20,8	22.273.145	8,1	-24,1
	2020	3.775.458	4,6	18,4	2.848.364	3,5	42,3	20.527.467	8,7	-7,8
Musika	2018	21.306.719	27,5	2,1	7.951.323	9,3	-14,4	63.129.552	22,9	9,6
	2020	24.366.598	29,5	14,4	9.591.203	11,7	20,6	60.536.947	25,7	-4,1
Ikusizko-arteak	2018	1.584.888	2,0	16,6	1.206.704	1,4	-36,1	3.406.624	1,2	-10,2
	2020	1.462.755	1,8	-7,7	2.442.874	3,0	102,4	2.632.866	1,1	-22,7
Zinema eta ikus-entzunezkoak	2018	13.030.809	16,8	24,9	3.715.506	4,4	203,7	6.612.913	2,4	26,8
	2020	13.405.672	16,2	2,9	4.069.932	4,9	9,5	5.323.537	2,3	-19,5

Kultura-sektorea	Urtea	Eusko Jauriaritza			Foru-aldundiak			Udalak		
		€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Literatura eta edizioa	2018	1.927.624	2,5	17,5	418.502	0,5	14,8	475.647	0,2	80,8
	2020	1.981.175	2,4	2,8	845.991	1,0	102,1	764.612	0,3	60,8
Kultura-ekintza	2018	5.808.866	7,5	-48,8	11.734.218	13,8	-28,8	68.152.562	24,7	-17,5
	2020	5.802.835	7,0	-0,1	9.842.931	12,0	-16,1	50.909.020	21,6	-25,3
Bertsolaritza	2018	186.223	0,2	78,7	431.002	0,5	-29,5	315.110	0,1	-23,7
	2020	225.690	0,3	21,2	369.110	0,4	-14,4	190.662	0,1	-39,5
Jaiak eta herri-kultura	2018	10.059	0,0	-	79.716	0,1	-33,8	32.548.496	11,8	-0,8
	2020	207.165	0,3	1959,5	42.273	0,1	-47,0	11.830.808	5,0	-63,7
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2018	2.510.408	3,2	-55,5	5.572.644	6,5	-41,7	28.785.156	10,4	49,5
	2020	3.216.757	3,9	28,1	5.544.898	6,7	-0,5	35.103.431	14,9	21,9
Guztira	2018	77.526.820	100,0	5,6	85.135.137	100,0	-2,7	276.078.922	100	-2,4
	2020	82.713.633	100,0	6,7	82.303.808	100,0	-3,3	235.812.635	100,0	-14,6

Kultura-gastua eremu eta sektoreen arabera aztertu ondoren, Udalek kultura-sektoreen arabera espezifikoki egindako gastua aztertuko dugu jarraian, kontuan hartuta, Lurralde Historikoak batetik, eta udalerrien biztanleria-tamaina bestetik.

2020an kultura-gastua, ehunekotan, **Lurralde Historikoetako** udaletan nola banatu den aztertzen badugu ohartzen gara udal guztietan, Arteen eta Kultura-industrien eremua dela gastuaren xede nagusia: % 66 Araban (14,0 milioi euro); % 64 Bizkaian (78,9 milioi euro) eta % 53 Gipuzkoan (48 milioi euro). 2018tik 2020ra bitarte, eremu horretarako gastuak behera egin du lurralde guztietan: Gipuzkoako udaletan nabaritu da bereziki jaitsiera hori (% 23ko beherakada, eta ia 14 milioi euro gutxiago eremu horretarako), neurri handi batean Kultura-ekintzako sektoreak behera egin duelako nabarmen (aurreko edizioan baino 11 milioi euro gutxiago zuzendu zaizkio sektoreari: % 39ko beherakada).

EAEko udalek Ondareari zuzendutako gastuaren bilakaeran beheranzko joera nabari bada ere, beherakada hori aldatu egin da lurralde batetik bestera. Arabako udalek 2018ko edizioan baino % 23 gutxiago bideratu dute Ondarera; Gipuzkoakoek % 5 gutxiago, eta Bizkaikoek ia ehuneko bera bideratu dute,

% 1eko beherakada txiki batekin. Arabako udaletan, Liburutegietarako gastua ia milioi 1 euro gutxitu da (% 25eko beherakada) eta Artxiboetarako gastuak, berriz, milioi-erdi bat egin du behera (% 41).

Balio erlatibotan, Jaietako eta herri-kulturako beherakada berdintsuagoa da lurralde historiko guztietan: Bizkaiko udaletan % 70 egin du behera (11,3 milioi euro gutxiago sektorerako), % 64 Araban (2,6 milioi euro gutxiago) eta % 55 Gipuzkoan (6,8 milioi euro gutxiago).

4. TAULA. Udalen gastua kulturaren kultura-sektorearen, lurralde historikoaren (eurotan eta %tan) eta Urtearen arabera.


Kultura-sektorea	Urtea	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			Udalak, guztira		
		€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Ondarea	2018	5.462.780	19,4	30,3	25.740.186	19,0	-13,0	19.176.751	17,0	8,0	50.379.717	18,2	-2,2
	2020	4.219.249	19,8	-22,8	25.545.959	20,6	-0,8	18.228.079	20,1	-4,9	47.993.287	20,4	-4,7
Arkeologia	2018	286.105	1,0	204,9	516.053	0,4	-91,0	648.192	0,6	-57,1	1.450.350	0,5	-80,2
	2020	598.135	2,8	109,1	828.121	0,7	60,5	620.690	0,7	-4,2	2.046.946	0,9	41,1
Liburutegia	2018	3.702.866	13,2	41,5	17.685.558	13,1	8,6	10.692.982	9,5	13,4	32.081.406	11,6	13,2
	2020	2.765.765	13,0	-25,3	17.115.397	13,8	-3,2	10.829.722	12,0	1,3	30.710.885	13,0	-4,3
Artxiboak	2018	1.218.496	4,3	-11,6	942.996	0,7	-17,8	1.046.771	0,9	97,3	3.208.262	1,2	5,0
	2020	716.949	3,4	-41,2	1.039.324	0,8	10,2	638.650	0,7	-39,0	2.394.923	1,0	-25,4
Museoak	2018	255.315	0,9	147,9	6.595.578	4,9	2,9	6.788.806	6,0	8,1	13.639.699	4,9	6,6
	2020	138.400	0,6	-45,8	6.563.116	5,3	-0,5	6.139.017	6,8	-9,6	12.840.533	5,4	-5,9
Arteak eta industriak	2018	17.580.081	62,4	2,6	84.779.384	62,7	4,7	62.006.088	55,0	-23,6	164.365.553	59,5	-8,3
	2020	14.015.821	65,7	-20,3	78.852.634	63,6	-7,0	48.016.655	53,1	-22,6	140.885.110	59,7	-14,3
Antzerkia eta dantza	2018	4.117.908	14,6	6,0	13.024.855	9,6	-18,8	5.130.382	4,6	-45,6	22.273.145	8,1	-24,1
	2020	3.275.717	15,4	-20,5	12.503.983	10,1	-4,0	4.747.767	5,2	-7,5	20.527.467	8,7	-7,8
Musika	2018	7.433.884	26,4	6,1	33.301.711	24,6	18,4	22.393.957	19,9	-0,4	63.129.552	22,9	9,6
	2020	6.220.500	29,2	-16,3	33.975.712	27,4	2,0	20.340.735	22,5	-9,2	60.536.947	25,7	-4,1
Ikusizko-arteak	2018	741.488	2,6	-38,5	1.255.415	0,9	112,6	1.409.721	1,3	-29,4	3.406.624	1,2	-10,2
	2020	156.524	0,7	-78,9	1.233.090	1,0	-1,8	1.243.252	1,4	-11,8	2.632.866	1,1	-22,7
Zinema eta ikus-entzunezkoak	2018	176.312	0,6	237,8	1.790.397	1,3	6,5	4.646.203	4,1	33,4	6.612.913	2,4	26,8
	2020	230.429	1,1	30,7	874.366	0,7	-51,2	4.218.742	4,7	-9,2	5.323.537	2,3	-19,5

Kultura-sektorea	Urtea	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			Udalak, guztira		
		€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Literatura eta edizioa	2018	6.783	0,0	-20,4	253.903	0,2	344,7	214.962	0,2	8,9	475.647	0,2	80,8
	2020	1.529	0,0	-77,5	589.888	0,5	132,3	173.195	0,2	-19,4	764.612	0,3	60,8
Kultura-ekintza	2018	5.011.070	17,8	2,0	35.010.496	25,9	2,2	28.130.997	25,0	-35,2	68.152.562	24,7	-17,5
	2020	4.107.755	19,3	-18,0	29.638.216	23,9	-15,3	17.163.049	19,0	-39,0	50.909.020	21,6	-25,3
Bertsolaritza	2018	92.636	0,3	35,4	142.606	0,1	-35,0	79.867	0,1	-36,1	315.110	0,1	-23,7
	2020	23.367	0,1	-74,8	37.379	0,0	-73,8	129.915	0,1	62,7	190.662	0,1	-39,5
Jaiak eta herri-kultura	2018	4.089.380	14,5	-6,7	16.101.590	11,9	-2,7	12.357.526	11,0	3,9	32.548.496	11,8	-0,8
	2020	1.470.215	6,9	-64,0	4.833.079	3,9	-70,0	5.527.514	6,1	-55,3	11.830.808	5,0	-63,7
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2018	1.023.313	3,6	4,8	8.592.476	6,4	34,3	19.169.367	17,0	61,5	28.785.156	10,4	49,5
	2020	1.623.357	7,6	58,6	14.788.328	11,9	72,1	18.691.746	20,7	-2,5	35.103.431	14,9	21,9
Guztira	2018	28.155.553	100,0	5,5	135.213.636	100,0	1,3	112.709.733	100,0	-8,1	276.078.922	100,0	-2,4
	2020	21.328.641	100,0	-24,2	124.019.999	100,0	-8,3	90.463.994	100,0	-19,7	235.812.635	100,0	-14,6

Aurreko urteetan bezalaxe, 2020an egiaztatu da, **udalerrien tamaina** edozein izanik ere, kultura-gastuaren proportzio nagusia Arteen eta Kultura-industriren eremurako dela, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako % 53tik (10,7 milioi euro) 20.000 biztanletik gorako udalerrietako (hiriburuak izan ezik) % 64ra bitarteko (42,8 milioi euro) ehunekoekin. 5.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitarteko udalerrietan, ehunekoa % 61 da (31,5 milioi euro), eta hiriburuetan % 58 (55,8 milioi euro).

Ondarea da habitat guztietan gastuaren ehuneko handiena jaso duen bigarren kultura-eremua, % 17tik % 25ra bitarteko ehunekoekin. Hirugarrenik, Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak, % 13tik % 16ra bitarteko ehunekoekin, eta, azkenik, Jaien eta herri-kulturaren sektorea, % 3tik % 7ra bitartekoekin (ehunekoak handiagoak dira biztanleria-tamaina txikiagoa duten udaletan).

9. GRAFIKOA. Gastua kulturalan kultura-eremuen eta udal-dimentsioaren arabera (%).



**GASTUA KULTURAN
ADMINISTRAZIO
PUBLIKOEN MULTZOAN**



EAEko administrazio publikoen multzoan kulturean egiten den gastua aztertuko dugu txostenaren kapitulu honetan. Baterako gastu horretara iristeko, administrazio-mailen arabera kontsolidatutako gastutik abiatuta beste arazketa bat egin da, hiru administrazio-mailetako bakoitzeko administrazioen arteko transferentzien gainean.

Txosten honen hasieran azaldu dugunez, informazio hori ikuspegi bikoitz batetik eskainiko da:

Jatorriko kontsolidazioa

Kontsolidazio horrek partiden jatorria erakusten du. Transferentziak jarraitzen du hura finantzatzen duen erakundeari lotuta, eta erakunde hartzaileari zenbateko bikoiztua kentzen zaio.



Helmugako kontsolidazioa

Kontsolidazio mota horrek transferentzien norakoa erakusten du. Transferentziak segitzen du erakunde hartzaileari lotuta, eta erakunde finantzatzaileari zenbateko bikoiztua kentzen zaio.



D.1 Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen artean

Administrazio-mailen arteko transferentzia gehienen igorleak udalez gaindiko administrazioak dira (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) eta hartzaileak, berriz, udalak eta haien mendeko erakundeak; neurri txikiago batean, Eusko Jaurlaritzak eta Udalek foru-aldundien mendeko sozietate publiko eta fundazioei egindako transferentziak dira.

2020an, Eusko Jaurlaritzak 13,5 milioi euro transferitu zuen administrazioaren beste maila batzuetara, % 8 gehiago (milioi 1 euro) 2018an egindakoa baino; 9,6 milioi euro udalei transferitu zitzaizkien, 3,8 milioi euro udalen mendeko sozietate publiko eta fundazioei, eta 84 mila euro foru-aldundien mendeko edo haiek partaidetutako sozietate publikoiei.

2020an foru-aldundiak 3,3 milioi euro transferitu zuten guztira. 2,5 milioi udalei transferitu zitzaizkien zuzenean, eta 761 mila euro, berriz, udalen mendeko edo udalek partaidetutako sozietate publiko eta fundazioei.

2020an udalek 2,7 milioi euro transferitu zuten, eta horietatik 2,6 milioi foru-aldundien mendeko edo haiek partaidetutako sozietate publiko eta fundazioei transferitu zitzaizkien, zehazkiago, Juan Crisóstomo de Arriaga Fundazioari (BOS).

5. TAULA. Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen artean eta transferentzien bilakaera 2018-2020 aldian.

Egindako transferentziak		Jasotako transferentziak						Egindako transferentziak, guztira
		Eusko Jaurlaritza	Eusko Jaurlaritzaren mendeko edo hark partaidetutako sozietate publikoak eta fundazioak	Foru-aldundiak	Foru-aldundien mendeko edo haiek partaidetutako sozietate publikoak eta fundazioak	Udalak	Udalen mendeko edo haiek partaidetutako sozietate publikoak eta fundazioak	
Eusko Jaurlaritza	€	0	0	0	83.733 €	9.619.695 €	3.806.683 €	13.510.110 €
	Bilakaera (2018-2020)	-	-	-	-61,4	49,6	-34,8	8,2
Foru-aldundiak	€	0	0	0	0	2.490.271 €	760.913 €	3.251.184 €
	Bilakaera 2018-2020	-	-100,0	-	-	-9,5	214,8	8,4
Udalak	€	0	0	0	2.631.919 €	61.601 €	51.074 €	2.744.594 €
	Bilakaera 2018-2020	-	-	-	1482,0	567,3	8,9	1133,6
Jasotako transferentziak guztira	€	0 €		2.715.652 €		16.790.236 €		19.505.888 €
	Bilakaera 2018-2020	-100,0		608,9		9,6		24,2

D.2 Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua

Jatorriko datuen kontsolidazioan, transferentziak segitzen du erakunde finantzatzaileari lotuta, eta horregatik, administrazio-maila bakoitzak EAEren gastu garbian duen pisua ezagutzeko bide ematen du.


Jatorriko kontsolidazioa

Kontsolidazio horrek partiden jatorria erakusten du. Transferentziak jarraitzen du hura finantzatzen duen erakundeari lotuta, eta erakunde hartzaileari zenbateko bikoiztua kentzen zaio.



EAEko kultura-gastu kontsolidatua 381,3 milioi euro izan da 2020an (% 10 gutxiago aurreko edizioan baino). Eusko Jaurlaritzak 82,7 milioi euroko gastua finantzatzen du (% 22); 79,6 milioi euro foru-aldundiei dagozkie (% 21), eta 219 milioi euro (% 57), berriz, udalei. Bereziki, udaletan kontsolidatutako gastuak izandako beherakadaren ondorio da jaitsiera hori, non gastuak % 16 egin duen behera (260,8 milioi euro izatetik 219,0 milioi euro izatera). Foru-aldundietan, beherakada % 6 izan da (84,8 milioi euro izatetik 79,6 milioi euro izatera), eta Eusko Jaurlaritzaren gastu kontsolidatua % 7 igo da (77,5 milioi eurotik 82,7 milioi eurora).

2020an, EAEren kultura-gastu-kontsolidatua estatistikaren edizio guztietako txikiena izan da. Hasi zenez geroztik, EAEren gastu kontsolidatuak % 20 egin du behera.

10. GRAFIKOA. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, administrazio-mailaren arabera (€) 2010-2020.


Aldakuntza	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak	EAE guztira
2008-2020	▲ % 3,5	▼ % 16,9	▼ % 27,8	▼ % 20,4
2018-2020	▲ % 6,7	▼ % 6,1	▼ % 16,0	▼ % 9,9


6. TAULA. Administrazio-maila bakoitzaren pisu erlatiboa EAEren kultura-gastuan (eurotan eta %tan).

Erakunde mota	Urtea	Kultura-gastua guztira		Transferentzia bidezko diru-sarrerak		Gastu kontsolidatua kulturari	
		€	%	€	%	€	%
Eusko Jaurlaritza	2018	77.526.820	17,7	5.350	0	77.521.470	18,3
	2020	82.713.633	20,6	0	0,0	82.713.633	21,7
Foru-aldundiak	2018	85.135.137	19,4	383.066	2,4	84.752.071	20
	2020	82.303.808	20,5	2.715.652	13,9	79.588.156	20,9
Udalak	2018	276.078.922	62,9	15.321.818	97,5	260.757.104	61,6
	2020	235.812.635	58,8	16.790.236	86,1	219.022.399	57,4
EAE guztira	2018	438.740.879	100	15.710.234	100	423.030.645	100
	2020	400.830.076	100,0	19.505.888	100,0	381.324.187	100

2020an EAEn jatorrian kontsolidatutako gastuaren kalitatearen arabera, 10 eurotik (% 91) ia 9 gastu arruntari dagozkie. Proportzioa handiagoa da udaletan (% 96), eta pixka bat txikiagoa, berriz, foru-aldundietan (% 87) eta Eusko Jaurlaritzan (% 84).

EAEn, gastu kontsolidatuaren kapital-gastuen pisua % 9 da. Kapital-gastuen proportzioa handiagoa da foru-aldundietan (% 14) eta Eusko Jaurlaritzan (% 16).

11. GRAFIKOA. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (%).



EAEko administrazio publikoen gastu kontsolidatuaren kapituluz kapituluko banaketak honako hau erakusten digu:

- ◆ **Gastu arrunten** barruan, zenbatekorik handiena langile-gastuei dagokie (I. kapitulua): 146,8 milioi euro eta EAEn kontsolidatutako gastu guztiaren % 39. Jarraian, ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kapitulu ekonomikoa dator (II. kapitulua), 123,3 milioi euroekin eta gastu osoaren % 32arekin. Bi kapitulu ekonomikohoriek eta finantza-gastuen kapituluak behera egin dute 2018ko datuen aldean, % 3 eta % 26, hurrenez hurren.
- ◆ Transferentzia arruntak (IV. kapitulua) 76,7 milioi euro dira (gastu kontsolidatu osoaren % 20). Kopuru horrek % 31 egin du gora, eta 18 milioi gehiago transferitu dira guztira. Eusko Jaurlaritzan nabari den igoera (% 87ko igoera, % 20,1 milioi euro izatetik % 37,7 milioi euro izatera) izan da igoera horren arrazoi ia bakarra.
- ◆ **Kapital-gastuei** dagokienez, inbertsioek nagusi izaten jarraitzen badute ere (kapital-gastuen 33,8 milioi euroetatik 24,1 milioi euro benetako inbertsioen kapitulari dagozkio), jaitziera nabaria izan da kapitulu horretan: inbertsioek % 36ko beherakada izan dute azken edizioaz geroztik. Udaletan inbertsioek izandako beherakadarekin zerikusi zuzena dauka jaitziera horrek: 2020an erakunde horietan % 55 gutxiago inbertitu da aurreko edizioan baino.
- ◆ **Transferentzia arruntek** bezalaxe, kapital-transferentziek ere gora egin dute 2018az geroztik, % 44 zehazkiago, eta 9,7 milioi euro izan dira guztira. Transferentzia arruntetan bezala, horrelako transferentzien gorakada Eusko Jaurlaritzan izandako gorakadari lotzen zaio (% 84ko igoera).
- ◆ 2018tik 20'20rako bilakaeran, honako hauek ikusten dira:
 - Eusko Jaurlaritzan, beste erakunde batzuei egindako transferentziek gora egin dute nabarmen (arruntak zein kapitalekoak), eta langile-gastuek ere egin dute gora, neurri apalagoan bada ere (% 7). Ondasun eta zerbitzuetan, ordea, gastuak behera egin du (% 21).
 - Foru-aldundietan, transferentzia arruntek (% 10) eta langile-gastuek (% 6) gora egin dute, eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntek (% 11) eta inbertsioek (% 21), aldiz, behera.
 - Udaletan, gastu mota guztiek behera egin dute, kapital-transferentziak izan ezik. Beherakada esanguratsuenak ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan (% 30) eta benetako inbertsioetan (% 55) nabari dira.

7. TAULA. EAEko administrazio publikoen kultura-gastuaren banaketa kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (eurotan eta % bertikala).

Kap. Ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza			Foru-aldundiak			Udalak			Guztira		
		€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %	€	%	Bilakaera %
Gastu arruntak	2018	54.107.704	83,2	-9,3	68.412.957	83,3	-6,2	253.826.904	92	3,5	376.347.566	89	-0,4
	2020	69.027.490	83,5	27,6	68.865.901	86,5	0,7	209.061.527	95,5	-17,6	346.954.918	91,0	-7,8
I. kapitulua. Langile-gastuak	2018	16.006.076	24,6	11,9	26.923.129	32,8	0,9	107.980.935	39,1	7,5	150.910.140	35,7	6,7
	2020	17.096.776	20,7	6,8	28.570.026	35,9	6,1	101.121.414	46,2	-6,4	146.788.216	38,5	-2,7
II. kapitulua. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	2018	17.960.435	27,6	19,3	25.378.119	30,9	-2,8	123.402.918	44,7	4,4	166.741.472	39,4	4,6
	2020	14.202.246	17,2	-20,9	22.550.354	28,3	-11,1	86.557.110	39,5	-29,9	123.309.711	32,3	-26,0
III. kapitulua. Finantza-gastuak	2018	28.521	0	-8,7	26.452,28	0	-20,5	81.080,81	0	-76,2	136.053,73	0	-66,4
	2020	36.029	0,0	26,3	41.041	0,1	55,2	45.663	0,0	-43,7	122.733	0,0	-9,8
IV. kapitulua. Transferentzia arruntak	2018	20.112.672	30,9	-33,6	16.085.258	19,6	-20	22.361.970	8,1	-15	58.559.900	13,8	-23,7
	2020	37.692.439	45,6	87,4	17.704.479	22,2	10,1	21.337.340	9,7	-4,6	76.734.258	20,1	31,0
Kapital-gastua	2018	9.844.524	15,1	-4,8	12.782.309	15,6	22,1	21.515.748	7,8	5,3	44.142.581	10,4	7
	2020	13.186.703	15,9	33,9	10.722.256	13,5	-16,1	9.925.403	4,5	-53,9	33.834.362	8,9	-23,4
VI. kapitulua. Benetako inbertsioak	2018	6.438.417	9,9	10,3	9.554.506	11,6	30,3	21.406.380	7,8	9,8	37.399.304	8,8	14,5
	2020	6.912.555	8,4	7,4	7.516.180	9,4	-21,3	9.667.676	4,4	-54,8	24.096.412	6,3	-35,6
VII. kapitulua. Kapital-transferentziak	2018	3.406.106	5,2	-24,3	3.227.803	3,9	3	109.367	0	-88,4	6.743.277	1,6	-21,4
	2020	6.274.148	7,6	84,2	3.206.075	4,0	-0,7	257.727	0,1	135,7	9.737.950	2,6	44,4
Finantza-aktibo eta -pasiboak	2018	1.086.400	1,7	-67,3	940.321	1,1	-72,4	513.778	0,2	-83	2.540.499	0,6	-73,9
	2020	499.439	0,6	-54,0	0	0,0	-100,0	35.468	0,0	-93,1	534.908	0,1	-78,9
VIII. kapitulua. Finantza-aktiboak	2018	1.032.099	1,6	-	899.189	1,1	-	513.778	0,2	1315,7	2.445.066	0,6	6637,4
	2020	499.439	0,6	-51,6	0	0,0	-100,0	35.468	0,0	-93,1	534.908	0,1	-78,1
IX. kapitulua. Finantza-pasiboak	2018	54.301	0,1	-98,4	41.132	0,1	-98,8	0	0	-100	95.433	0	-99
	2020	0	0,0	-100,0	0	0,0	-100,0	0	0,0	-	0	0,0	-100,0
Guztira	2018	65.038.628	100	-11,3	82.135.588	100	-5,4	275.865.661	100	2,6	423.030.646	100	-1,4
	2020	82.713.633	100,0	27,2	79.588.156	100,0	-3,1	219.022.399	100,0	-20,6	381.324.188	100,0	-9,9

D.3 Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua

EAE osorako kontsolidatutako kultura-gastuaren emaitzak aurkezten dira kapitulu honetan, gastu hori gastua gauzatu duen erakundearen mantenduz eta transferentzia eta dirulaguntzak jatorrian kenduz. Horrela egindako

kontsolidazio-prozesuak zehatzago adierazten du gastuen kultura-helmuga eta banaketa ekonomikoa.


Helmugako kontsolidazioa

Kontsolidazio mota horrek transferentzien norakoa erakusten du. Transferentziak segitzen du erakunde hartzaileari lotuta, eta erakunde finantzatzaileari zenbateko bikoiztua kentzen zaio.



2020an, kulturalan egindako gastu publikoaren % 54 arteen eta kultura-industrien eremurako izan zen (206,8 milioi euro); jarraian, ondareak gastuaren % 31 bereganatu zuen (118,6 milioi euro). Zuzendaritzaren eta zerbitzu orokorren gastuak gastu osoaren % 12 dira (43,9 milioi euro), eta Jaietan eta herri-kulturaren gastuak berriz, % 3 (12,1 milioi euro).

2018-2020 aldian kultura-eremu guztiek behera egin zuten Zuzendaritzaren eta zerbitzu orokorren eremuak izan ezik (% 12 egin du gora 2018az geroztik). Termino erlatibotik, beherakada nabariena Jaietan eta herri-kulturalan izan da, EAEko gastu kontsolidatuan % 63ko beherakada izanik (2018an, sektoreari 32,6 milioi euro zuzendu zitzaizkion; 2020an, berriz, 12,1 milioi euro). Arteen eta kultura-industrien eremuak % 9 egin du behera (228,2 milioi euro izatetik 206,8 milioi izatera), eta Ondareak % 5 (125,3 milioi eurotik 118,6 milioi).

12. GRAFIKOA. Jatorrian kontsolidatutako kultura-gastua, kultura-sektorearen arabera (€). 2010-2020.

Aldakuntza	Ondarea	Arteak eta industriak	Jaiak eta herri-kultura	Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	EAE guztira
2008-2020	▼ % 25,4	▼ % 16,3	▼ % 67,8	▲ % 24,3	▼ % 20,4
2018-2020	▼ % 5,4	▼ % 9,4	▼ % 63,0	▲ % 19,0	▼ % 9,9


Sektorea zehatzago aztertuz gero ohartzen gara 2020an Musikaren sektorerako izan dela gasturik handiena: guztira, 82,0 milioi euro izan dira sektore horretarako (gastu kontsolidatu osoaren % 22). Gastu horrek behera egin du aurreko edizioaren aldean (% 2ko beherakada). Bigarrenik, Kultura-ekintzaren sektorea dago, % 17eko pisu erlatiboarekin eta 65,1 milioi euroekin (kasu honetan, sektore horretarako gastuaren beherakada nabariagoa izan da: % 23). Eta hirugarren tokian, Museoen sektorea dugu, gastu osoaren % 14arekin eta 53,5 milioi euroko kopuru absolutuarekin (kopuru hori ia egonkor mantendu da aurreko edizioaz geroztik).

2018an kulturaren kontsolidatutako gastuari dagokionez, honako sektore hauetan egin du gora gastu kontsolidatuak: Literatura eta edizioa (% 27ko igoera), Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (% 19), Ikusizko-arteak (% 10) eta Museoak (% 0,3ko igoerarekin bakarrik).

Gainerako sektore guztietan, horretarako gastua gutxitu egin da. Beherakada handiena Jaiak eta herri-kultura, Kultura-ekintza, Artxiboak eta Bertsolaritza eremuetan gertatu da (% 63, % 23, % 22 eta % 16, hurrenez hurren).

Datuei beste ikuspegi batetik begiratuta, kulturaren kontsolidatutako gastua 173,4 da biztanle bakoitzeko. Gastuaren beherakada berri horren ostean, 2020an ratio horrek mailarik txikiena lortu du estatistikaren orain arteko edizio guztietan.

13. GRAFIKOA. Gastua kulturalan EAEko administrazio publikoetan, kultura-eremuaren arabera (%). 2018-2020.



8. TAULA. Kulturako gastuaren eta gastu kontsolidatuaren banaketa biztanleko EAEko administrazio publikoetan, kultura-sektorearen eta Urtearen arabera (1/2).


Kultura-sektorea	Urtea	Gastu kontsolidatua kulturari			Biztanleko gastua
		€	%	Bilakaera %	€/bikt.
Ondarea	2018	125.310.751	29,6	12,7	57,5
	2020	118.558.711	31,1	-5,4	53,9
Ondarea eta arkeologia	2018	14.389.703	3,4	-30,6	6,6
	2020	13.129.515	3,4	-8,8	6,0
Liburutegiak	2018	43.965.907	10,4	22,3	20,2
	2020	41.319.219	10,8	-6,0	18,8
Artxiboak	2018	13.623.439	3,2	51,2	6,2
	2020	10.618.179	2,8	-22,1	4,8
Museoak	2018	53.331.702	12,6	17,2	24,5
	2020	53.491.798	14,0	0,3	24,3
Arteak eta industriak	2018	228.213.416	53,9	-8,9	104,7
	2020	206.820.145	54,2	-9,4	94,0
Antzerkia eta dantza	2018	26.423.038	6,2	-20,9	12,1
	2020	26.093.146	6,8	-1,2	11,9
Musika	2018	84.028.482	19,9	4,3	38,5
	2020	82.029.942	21,5	-2,4	37,3
Ikusizko-arteak	2018	5.930.780	1,4	-13	2,7
	2020	6.493.807	1,7	9,5	3,0
Zinema eta ikus-entzunezkoak	2018	23.359.228	5,5	38,9	10,7
	2020	22.773.657	6,0	-2,5	10,4
Literatura eta edizioa	2018	2.821.774	0,7	27,4	1,3
	2020	3.577.669	0,9	26,8	1,6
Kultura-ekintza	2018	84.717.780	20	-22,6	38,9
	2020	65.066.462	17,1	-23,2	29,6
Bertsolaritza	2018	932.335	0,2	-13,9	0,4
	2020	785.462	0,2	-15,8	0,4
Jaiak eta herri-kultura	2018	32.638.270	7,7	-0,8	15
	2020	12.080.246	3,2	-63,0	5,5
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2018	36.868.208	8,7	7	16,9
	2020	43.865.086	11,5	19,0	19,9
Guztira	2018	423.030.646	100	-1,4	194
	2020	381.324.188	100,0	-9,9	173,4

D.4 Emaitza nagusiak kultura-sektorearen arabera


Musika

- ◆ Termino absolututan sektorerako zenbatekoak behera egin badu ere (% 2 egin du behera, 84,0 milioi euro izatetik 82,0 milioi euro izatera), aurreko edizioaz geroztik gora egin du Musikaren sektoreak gastu kontsolidatu osoaren gainean duen pisuak: % 20 izatetik % 22 izatera pasatu da. Horregatik, sektorea lehen postuan jarri da sektore bakoitzak kultura-gastu osoaren gainean duen garrantziaren sailkapenean.
- ◆ Sektore horren gastuaren zati handiena langile-gastuetarako da (Musikako gastu guztiaren % 66). Nabarmentzekoa da langile-gastu horiek EAEko kultura-langileen gastu osoaren % 35 direla.
- ◆ Sektoreko ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntek nabarmen egin dute behera (% 29ko beherakada), 16,3 milioi euro izatetik 11,6 milioi euro izatera.
- ◆ Transferentzia arruntek, ordea, gora egin dute, 3,7 milioi euroan (% 35eko gorakada).

14. GRAFIKOA. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Musikarako (%) 2010-2020.



15. GRAFIKOA. Biztanleko gastu kontsolidatua Musikarako (€) 2010-2020.




9. TAULA. EAEko kultura-gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera: Musika (€tan eta %tan) 2010-2020.

Kultura-sektorea	Urtea	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	Guztira
Musika	2010	48.692.767	16.882.659	6.830	14.802.255	9.214.435	2.986.403	49.227	0	92.634.576
	2012	48.738.235	23.065.752	19.688	10.084.958	11.216.207	26.202	34.924	0	93.185.966
	2014	48.654.406	17.916.270	1.972	9.664.526	1.335.730	6.972	119.229	0	77.699.104
	2016	48.786.402	19.530.360	2.328	10.702.774	1.547.048	0	31.328	0	80.600.240
	2018	53.177.125	16.268.092	2.665	10.605.278	3.284.186	122.000	569.136	0	84.028.482
	2020	54.355.039	11.624.210	337	14.289.035	1.726.822	22.000	12.500	0	82.029.942
	2020 (%)	66,3	14,2	0,0	17,4	2,1	0,0	0,0	0,0	100,0
% EAEren gainean	35,1	9,0	0,3	22,7	6,4	0,4	2,3	0,0	21,5	
Bilakaera	2010-2020 (%)	11,6	-31,1	-95,1	-3,5	-81,3	-99,3	-74,6	-	-11,4
	2018-2020 (%)	2,2	-28,5	-87,4	34,7	-47,4	-82,0	-97,8	-	-2,4


Kultura-ekintza

- ◆ Gastuaren beherakada handia nabari da sektorean: % 23ko beherakada, 84,7 milioi euro izatetik 65,1 milioi euro izatera. 2010-2020 bilakaera ere negatiboa izan da (% 21eko beherakada).
- ◆ Aurreko edizioaz geroztik sektoreak behera egin du sektoreek kultura-gastu kontsolidatu osoan duten garrantziaren sailkapenean (% 17) eta biztanleko kultura-ekintzaren gastuan (29,6 euro biztanleko), 2018an lehen tokia izatetik 2020an bigarrena izatera.
- ◆ Kultura-ekintzako gastuaren erdia baino gehiago (% 57,3) ondasun arrunt eta zerbitzuen gasturako da (37,3 milioi euro).
- ◆ Kopuru absolututan, langile-gastuak dira aurreko edizioaz geroztik gehien jaitsi den gastu mota, ia 8 milioi euro gutxiago izan baitira (% 41eko beherakada). Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan, 5,8 milioi euroko beherakada izan da (% 13 ehunekotan).

16. GRAFIKOA. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Kultura-ekintzarako (%) 2010-2020.



17. GRAFIKOA. Biztanleko gastu kontsolidatua Kultura-ekintzarako (€) 2010-2020.




10. TAULA. EAEko kultura-gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera: Kultura-ekintza (€tan eta %tan) 2010-2020.

Kultura-sektorea	Urtea	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	Guztira
Kultura-ekintza	2010	9.615.621	36.029.330	3.217	14.817.714	19.760.053	2.202.864	7.482	118.918	82.555.199
	2012	10.936.761	26.536.616	6.480	11.330.174	9.863.145	1.278.737	28.053	98.020	60.077.986
	2014	13.174.652	37.465.854	142.837	10.619.991	16.696.782	281.037	30.098	150.451	78.561.702
	2016	23.239.187	59.304.155	7.662	14.811.308	11.233.505	889.307	20.013	0	109.505.136
	2018	19.446.081	43.061.728	1.655	14.239.719	6.900.363	193.841	874.392	0	84.717.780
	2020	11.524.006	37.291.236	500	12.105.062	4.053.652	65.000	27.006	0	65.066.462
	2020 (%)	17,7	57,3	0,0	18,6	6,2	0,1	0,0	0,0	100,0
% EAEren gainean	7,4	28,7	0,4	19,2	15,0	1,1	4,9	0,0	17,1	
Bilakaera	2010-2020 (%)	19,8	3,5	-84,5	-18,3	-79,5	-97,0	260,9	-100,0	-21,2
	2018-2020 (%)	-40,7	-13,4	-69,8	-15,0	-41,3	-66,5	-96,9	-	-23,2


Museoak

- ◆ Museoetarako gastuak egonkor eutsi dio aurreko edizioaz geroztik. 53,5 milioi euro zuzendu zaizkio sektoreari, kultura-gastu osoaren % 14 eta 24,3 euro biztanleko.
- ◆ Sektorean gastu arrunta kapitalari gailentzen zaio (gastuaren % 87 arrunta da), eta horren barruan, bigarren kapitulua da oraindik ere baliabide gehien bereganatzen dituen, nahiz eta beherakada handia izan duen (% 15: 3,2 milioi euro gutxiago).
- ◆ Sektore honetarako transferentziek gora egin dute: 13,4 milioi euro izatetik 15,8 milioi euro izatera (% 19ko gorakada).
- ◆ Kapital-gastuari dagokionez, benetako inbertsioak nabarmentzen dira: Museoetan 6,1 milioi euro inbertitu dira, aurreko edizioan baino % 16 gehiago, eta EAEn kulturari egin diren inbertsio guztien % 23.

18. GRAFIKOA. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Museoetarako (%) 2010-2020.



19. GRAFIKOA. Biztanleko gastu kontsolidatua Museoetarako (€) 2010-2020.




11. TAULA. EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Museoak (€tan eta %tan) 2010-2020.

Kultura-sektorea	Urtea	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	Guztira
Museoak	2010	10.497.423	14.432.360	102.663	10.836.999	9.809.310	6.646.705	5.288.888	0	57.614.348
	2012	10.556.419	17.968.550	140.371	11.052.031	3.230.328	516.825	959.813	81.107	44.505.444
	2014	10.761.455	16.719.037	133.039	12.443.252	1.782.647	648.956	146.141	64.875	42.699.402
	2016	11.821.492	15.920.935	69.667	14.866.218	2.707.527	106.969	0	0	45.492.808
	2018	11.648.355	21.509.071	47.508	13.352.367	5.274.088	406.000	998.879	95.433	53.331.702
	2020	12.516.750	18.333.039	70.386	15.826.573	6.140.612	105.000	499.439	0	53.491.798
	2020 (%)	23,4	34,3	0,1	29,6	11,5	0,2	0,9	0,0	100,0
% EAEn gainean	8,1	14,1	56,3	25,1	22,8	1,7	90,5	0,0	14,0	
Bilakaera	2010-2020 (%)	19,2	27,0	-31,4	46,0	-37,4	-98,4	-90,6	-	-7,2
	2018-2020 (%)	7,5	-14,8	48,2	18,5	16,4	-74,1	-50,0	-100,0	0,3


Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak

- ◆ 2020an, Zuzendaritzaren eta zerbitzu orokorren gastua 43,9 milioi euro izan da. Sektorearen gastua % 12 izan da gastu kontsolidatu osoaren gainean, eta biztanleko gastua 19,9 euro izan da.
- ◆ Sektore honen hiru eurotik bi langile-gastuak dira (% 67): 29,3 milioi euro; eta, jarraian, ondasun eta zerbitzuetako gastuak, 12,2 milioi euroekin (% 28).

20. GRAFIKOA. EAEko kultura-gastu kontsolidatua Zuzendaritzarako eta zerbitzu orokorretarako (%) 2010-2020.



21. GRAFIKOA. Biztanleko gastu kontsolidatua Zuzendaritzarako eta zerbitzu orokorretarako (€) 2010-2020.




12. TAULA. EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren arabera: Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (€tan eta %tan) 2010-2020.

Kultura-sektorea	Urtea	I. kap.	II. kap.	III. kap.	IV. kap.	VI. kap.	VII. kap.	VIII. kap.	IX. kap.	Guztira
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2010	21.590.978	10.363.694	265.640	123.694	2.930.049	0	16.557	0	35.290.612
	2012	16.740.827	8.423.944	266.844	157.727	656.512	0	10.824	0	26.256.678
	2014	19.291.802	4.264.114	585.681	0	1.495.214	69.790	7.559	0	25.714.161
	2016	14.615.144	5.590.530	343.140	262.774	3.866.286	31.597	0	9.736.940	34.446.410
	2018	18.401.182	12.458.387	2.473	96.029	5.826.489	80.990	2.659	0	36.868.208
	2020	29.271.925	12.174.029	5.849	561.386	1.838.898	0	13.000	0	43.865.086
	2020 (%)	66,7	27,8	0,0	1,3	4,2	0,0	0,0	0,0	100,0
% EAEren gainean	18,9	9,4	4,7	0,9	6,8	0,0	2,4	0,0	11,5	
Bilakaera	2010-2020 (%)	35,6	17,5	-97,8	353,9	-37,2	-	-21,5	-	24,3
	2018-2020 (%)	59,1	-2,3	136,5	484,6	-68,4	-100,0	388,9	-	19,0


Liburutegiak

